

AVISO / OHARRA

KIUBek OHARTARAZI DU TELEKOMUNIKAZIOETAKO TEKNIKARIAK HITZARTU GABEKO BISITAK EGITEN ARI DIRELA ZENBAIT ETXETARA

Enkarterriko Mankomunitatearen Kontsumitzaileen Informaziorako Bulegoak jakin du telekomunikazioetako teknikariak joan direla Güeñesko etxe batzuetara, zuntz optikoa instalatzera. Etxe horietan bizi direnek ez dute horren berririk izan aurretik, adinez nagusiak dira eta ez dute zerbitzu hori instalatzeko eskaerarik edo kudeaketarik egin.

Hori horrela, egon daitekeen edozein arrisku saihesteko, alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- Instalazio-konpainiek aldeztu aurretik abisatu behar dute teknikariak bertaratuko direla, idatziz (gutun bidez edo higiezinan ondo ikusteko moduan jarritako oharren bidez) eta behar besteko aurrerapenarekin. Jakinarazpen horietan adierazi behar dute zer lan egingo dituzten eta etxeetara sartu beharko dutela, baita lanak zer egun eta ordutan egingo dituzten ere.
- Teknikariek ondo identifikatuta egon behar dute etxeetara sartzeko, eta identifikazioa erakutsi beharko diote etxearen jabeari.